1.-Encargo para el suministro, instalación, reubicación, mantenimiento, limpieza y explotación de las instalaciones de mobiliario urbano adscritos al servicio de transporte y la explotación publicitaria de las Estaciones de Bicicleta Pública (JGL 22-01-2019).

2.- Donostiako Udalak Donostiako Tranbia Konpainia SAri esleitzea bizikleta publikoaren sistema kudeatzeko jarduketa-enkargua (TGB, 2019-07-02).

2.-Encargo de actuación del Ayuntamiento de San Sebastián a Compañía del Tranvía de San Sebastián SA de la gestión del sistema de bicicleta Pública (JGL 2-07-2019).

Akordioak ondoriorik gabe uzten ditu aurreko enkarguak.

El acuerdo deja sin efecto los encargos anteriores.

BIGARRENA.- Akziodunen Batzar Nagusiak DTKren estatutuen aldaketa onetsiko du, lehenengo puntuan erabakitakoa sozietatearen xedeari eransteko eta dagozkion egokitzapenak egiteko.

SEGUNDO.- Por la Junta General de accionistas se procederá a la aprobación de la correspondiente modificación de los estatutos de CTSS para incorporar lo acordado en el punto primero a su objeto social y realizar las adaptaciones que procedan.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Antonio Chavarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza”

Eztabaida hasita, Pilar Arana Perez andreak, Marta Huarte Paño andreak eta Zigor Etxeburua Urbizu jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Pilar Arana Pérez, D.ª Marta Huarte Paño y D. Zigor Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**7. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, antzinako Geriatrikora sartzeko alboko eskailera batzuk eraikitzeari buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarritzat hartuta, antzinako Geriatrikora sartzeko alboko eskailera batzuk eraikitzeari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkezten dio Udalbatzari, osoko bilkuran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Aiete, Errotaburu eta Ibaeta artean, Lugaritz pasealekuan dago kokatuta Topoaren Lugaritz geltokia. Auzo horietako herritarrei ematen die

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**7. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre la construcción de unas escaleras laterales de acceso al antiguo Geriátrico.**

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA para su debate en el Pleno, sobre la construcción de unas escaleras laterales de acceso al antiguo Geriátrico.

JUSTIFICACIÓN

La estación del topo de Lugaritz situada entre Aiete, Errotaburu e Ibaeta, en el Paseo de Lugaritz, da servicio a los vecinos de todos estos

zerbitzua.

Herritar horietako batzuk geriatrikoa izandako eraikineko bizilagunak dira, eta buelta handia eman behar dute topotik atera eta haien etxeetara iristeko. Zebra-bidearen parean eskailera bat eraikiz gero, ordea, izugarri samurtuko genieke bizimodua inguru hartako donostiarrei.

Lursail horiek Eusko Jaurlaritzarenak dira eta hark egin beharko lituzke obrak horiek.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lugaritzeko topo-geltokiaren aurrean dagoen zebra-bidearen ondoan eskailera batzuk eraikitzeko proiektua gauzatu dezala, Geriatrikoa izandako eraikinera iristeko.

Donostian, 2022ko ekainaren 3an

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

barrios.

Parte de estos vecinos son los residentes del edificio del antiguo Geriátrico, que al salir de la estación de Lugaritz, tienen que dar una vuelta muy larga para llegar a sus casas. Si se construyera una escalera a la altura del paso de cebra ya existente sobre la ladera, facilitaríamos mucho la vida de estos donostiarras.

Esos terrenos pertenecen al Gobierno Vasco, que debería ser el encargado de realizar dicha obra.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a realizar el proyecto para la construcción de unas escaleras, junto al paso de cebra existente frente a la estación del topo en Lugaritz, que comuniquen con el edificio del antiguo Geriátrico.

En San Sebastián, a 3 de junio de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Marta Huarte Paño andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marta Huarte Paño y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**8. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Gipuzkoa Babestu 20_30 Plan Estrategikoari buruz.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu behar dio UDALBATZARI, Gipuzkoa Babestu 20_30 Plan Estrategikoa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko asteartean sua izan zen Irungo Casto kalean. Hamaika pertsona artatu behar izan zituzten, kea irentsi zutela eta. Batzuek mediku-zerbitzuak behar izan zituzten, eta bi ospitalean daude une honetan.

Bidasoa Parkeko suhiltzaileek ohar baten bidez salatu dute Urola Kostako zerbitzura jo behar izan zutela sua itzaltzen laguntzeko eskatzera; Zarautza, alegia. Irungo suhiltzaileek gogorarazi dute aspalditik ari direla salatzen hitzarmen bat izan behar litzatekeela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean, Donostiako Parkeak automatiko laguntzeko Irungoari Oarso-Bidasoa eskualdean gertatzen diren larrialdietan.

Esan dezagun Donostiako Suhiltzaileen Parkeak Donostialdean bakarrik egiten dituela zerbitzuak, eta, baliabiderik ez denez, ezin diola Oarso-Bidasoa inguruari kasu egin.

**8. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el plan estratégico Gipuzkoa Babestu 20_30.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre el Plan Estratégico Gipuzkoa Babestu 20_30.

JUSTIFICACIÓN

Este martes pasado se declaró un incendio en la calle Casto de Irun. Tuvieron que ser atendidas once personas por inhalación de humo, varias de ellas requirieron de los servicios médicos y dos de ellas permanecen hospitalizadas en estos momentos.

Los bomberos del parque de Bidasoa han denunciado a través de una nota que para dar cobertura al incendio, ha tenido que acudir el servicio de Kosta Urola, situado en Zarautz. Los bomberos de Irun han recordado que desde hace mucho tiempo vienen denunciando la falta de un convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián, para que este último preste apoyo automático a los efectivos de Irún en las emergencias que se producen en la comarca Oarso-Bidasoa.

Hace falta reseñar que el parque de bomberas/os de Donostia solo realiza servicios en Donostialdea, y por la falta de recursos no puede atender a la zona de Oarso-Bidasoa. Esta

Gipuzkoako Foru Aldundiko Prebentzio eta Salbamendu Zerbitzuaren eta Donostiako Suhiltzaile Parkearen artean lerro operatiborik ez dagoelako gertatzen da hori.

situación es debida a la inexistencia de una linea operativa entre el servicio de Prevención y Salvamento de la Diputación de Gipuzkoa y el parque de bomberos de Donostia.

Koordinazio-falta horren ondorioz, babesik gabe geratzen dira toki batzuk, eta ez dago herritarren segurtasuna bermatzerik.

El resultado de esta falta de coordinación se traduce en la desprotección de zonas y por tanto en la imposiblidad de garantizar la seguridad de los ciudadanos.

Larrialdietan arin eta herritarren premietara egokituta kasu egitea bermatzeko, diagnostikoa eta lankidetza-lan bat egin ziren. Donostiako Udaleko suhiltzaile-zerbitzuaren inplikazioa izan zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile-zerbitzuko teknikariek egin zituzten. Haren ondorioz, Gipuzkoa Babestu 20_30 Plana egin zen, Batzar Nagusiei aurkeztu eta aurreko legegintzaldian onartu zen. Plan horrek larrialdietako benetako beharren araberako bateratze operatiboa aurreikusten du, Gipuzkoan ikuspegi orokorra aplikatu ahal izateko, herritarrei kasu egiteko orduan gaitasun eta kalitate handiagoa izateko, erantzun-denbora laburrena lehenetsiz. Horretarako, bi suhiltzaile-parkeen zerbitzuak bateratu egin behar dira operatiboki.

Con el objetivo de garantizar una atención ágil a las emergencias y adaptada a las necesidades de la ciudadanía, se realizó un diagnóstico y un trabajo colaborativo, con la implicación del servicio de bomberas/os del Ayuntamiento de Donostia, y siendo elaborado por los técnicos del servicio de bomberas/os de la Diputación de Gipuzkoa, resultando el Plan Gipuzkoa Babestu 20_30 que fue presentado en las Juntas Generales y aprobado en la pasada legislatura. Este plan contempla la unificación operativa en base a las necesidades reales en los casos de emergencias, de forma que pueda ser aplicada una visión general en Gipuzkoa para así mejorar su capacidad y calidad de respuesta en la atención a los ciudadanos, priorizando el menor tiempo de respuesta. Esto pasa por unificar operativamente los servicios de los dos parques de bomberas/os.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio abian jartzeko Gipuzkoa Babestu 20_30 Suhiltzaile Zerbitzuaren Plan Estrategikoa.

Donostia, 2022ko ekainaren 3a

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Elkarrekin Donostiaren bozeramailea"

Por todo ello, realizamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a poner en marcha el Plan Estratégico del Servicio de Bomberas/os Gipuzkoa Babestu 20_30.

Donostia, a 3 de Junio de 2022

Aitzole Araneta Zinkunegi,
Portavoz de Elkarrekin Donostia"

Eztabaida hasita, Marta Huarte Paño andreak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Reyes Carrere Zabala y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEK 8. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE AL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 - ELKARREKIN DONOSTIA, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – (5) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 1 - ELKARREKIN DONOSTIA, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**8. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – (1) ELKARREKIN DONOSTIA; 1 - ELKARREKIN DONOSTIA, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – (1) ELKARREKIN DONOSTIA; 1 - ELKARREKIN DONOSTIA, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

"Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita hiruan izan zuen osoko bilera ohikoan, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuela, gehiengoz. Gipuzkoa Babestu 20_30 Plan Estrategikoaren gainekoa da mozioa, eta EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek elkarren artean aurkeztutako zuzenketa eske bat ere (erabaki zatia aldatzea) sartuta dauka. Horrenbestez, hauxe da azkenean onartutako testua:

*"Aurreko asteartean sua izan zen Irungo Casto kalean. Hamaika pertsona artatu behar izan zituzten, kea irentsi zutela eta. Batzuek mediku-zerbitzuak behar izan zituzten, eta bi ospitalean daude une honetan.*

*Bidasoa Parkeko suhiltzaileek ohar baten bidez salatu dute Urola Kostako zerbitzura jo behar izan zutela sua itzaltzen laguntzeko eskatzera; Zarautza, alegia. Irungo suhiltzaileek gogorarazi dute aspalditik ari direla salatzen hitzarmen bat izan behar litzatekeela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean, Donostiako Parkeak automatiko laguntzeko Irungoari Oarso-Bidasoa eskualdean gertatzen diren larrialdietan.*

*Esan dezagun Donostiako Suhiltzaileen Parkeak Donostialdean bakarrik egiten dituela zerbitzuak, eta, baliabiderik ez denez, ezin diola Oarso-Bidasoa inguruari kasu egin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Prebentzio eta Salbamendu Zerbitzuaren eta Donostiako Suhiltzaile Parkearen artean lerro operatiborik ez dagoelako gertatzen da hori.*

*Koordinazio-falta horren ondorioz, babesik gabe geratzen dira toki batzuk, eta ez dago herritarren segurtasuna bermatzerik.*

"Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintitrés de junio de dos mil veintidós, aprobó, por mayoría, la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el Plan Estratégico Gipuzkoa Babestu 20_30, que incorpora una enmienda conjunta aprobada, presentada por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, de modificación de la parte dispositiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*"Este martes pasado se declaró un incendio en la calle Casto de Irun. Tuvieron que ser atendidas once personas por inhalación de humo, varias de ellas requirieron de los servicios médicos y dos de ellas permanecen hospitalizadas en estos momentos.*

*Los bomberos del parque de Bidasoa han denunciado a través de una nota que para dar cobertura al incendio, ha tenido que acudir el servicio de Kosta Urola, situado en Zarautz. Los bomberos de Irun han recordado que desde hace mucho tiempo vienen denunciando la falta de un convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián, para que este último preste apoyo automático a los efectivos de Irún en las emergencias que se producen en la comarca Oarso-Bidasoa.*

*Hace falta reseñar que el parque de bomberas/os de Donostia solo realiza servicios en Donostialdea, y por la falta de recursos no puede atender a la zona de Oarso-Bidasoa. Esta situación es debida a la inexistencia de una linea operativa entre el servicio de Prevención y Salvamento de la Diputación de Gipuzkoa y el parque de bomberos de Donostia.*

*El resultado de esta falta de coordinación se traduce en la desprotección de zonas y por tanto en la imposiblidad de garantizar la*

*Larrialdietan arin eta herritarren premietara egokituta kasu egitea bermatzeko, diagnostikoa eta lankidetza-lan bat egin ziren. Donostiako Udaleko suhiltzaile-zerbitzuaren inplikazioa izan zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile-zerbitzuko teknikariek egin zituzten. Haren ondorioz, Gipuzkoa Babestu 20_30 Plana egin zen, Batzar Nagusiei aurkeztu eta aurreko legegintzaldian onartu zen. Plan horrek larrialdietako benetako beharren araberako bateratze operatiboa aurreikusten du, Gipuzkoan ikuspegi orokorra aplikatu ahal izateko, herritarrei kasu egiteko orduan gaitasun eta kalitate handiagoa izateko, erantzun-denbora laburrena lehenetsiz. Horretarako, bi suhiltzaile-parkeen zerbitzuak bateratu egin behar dira operatiboki.*

*Hori dela eta, hauxe da gure*

*MOZIO ARRUNTA*

*1.- Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Suhiltzaile Zerbitzuaren Gipuzkoa Babestu 20_30 Plan Estrategikoa garatzen jarraitzeko.”*====================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita zazpian.

*seguridad de los ciudadanos.*

*Con el objetivo de garantizar una atención ágil a las emergencias y adaptada a las necesidades de la ciudadanía, se realizó un diagnóstico y un trabajo colaborativo, con la implicación del servicio de bomberas/os del Ayuntamiento de Donostia, y siendo elaborado por los técnicos del servicio de bomberas/os de la Diputación de Gipuzkoa, resultando el Plan Gipuzkoa Babestu 20_30 que fue presentado en las Juntas Generales y aprobado en la pasada legislatura. Este plan contempla la unificación operativa en base a las necesidades reales en los casos de emergencias, de forma que pueda ser aplicada una visión general en Gipuzkoa para así mejorar su capacidad y calidad de respuesta en la atención a los ciudadanos, priorizando el menor tiempo de respuesta. Esto pasa por unificar operativamente los servicios de los dos parques de bomberas/os.*

*Por todo ello, realizamos la siguiente:*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a continuar desarrollando el Plan Estatégico del Servicio de Bomberos Gipuzkoa Babestu 20_30.”*======================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintisiete de junio de dos mil veintidós.

ALKATEAK O. E. /

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”

--------------

II.2

KONTROL MOZIOAK

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, donostiarrek elikadura beharrarekiko duten ongizate mailari buruzkoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko ekainaren 13an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko azaroan, Alde Zaharreko hainbat bizilagunek Kaleko Afari Solidarioak taldea osatu zuten, kale gorrian zeuden norbanakoei afari beroak eskaintzeko gauero. Hilabete batzuk geroago, 2021eko martxoan, Egiako bizilagunek jarri zuten martxan ekimen bera. Aurten, Amara izan da bere afari talde propioa sortu duena (martxoan). Hortaz, gaur egun, hiru auzok eskaintzen dizkiete afari beroak kale egoeran dauden pertsonei, bizilagunen solidaritateari esker, eta ekimena hasi zenetik 40.000 afari baino gehiago banatu dituzte.

Era berean, Espainiako Elikagai Bankuen Federazioak (FESBAL) egiaztatu du eskaera

II.2

MOCIONES DE CONTROL

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el grado de bienestar de la ciudadanía donostiarra respecto a la necesidad de alimentación.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas que tuvo lugar el 13 de junio de 2022.

JUSTIFICACIÓN

En noviembre de 2020, personas residentes en la Parte Vieja conformaron el grupo Kaleko Afari Solidarioak, con el objetivo de ofrecer cenas calientes cada noche a personas sin hogar. Meses después, en marzo de 2021, vecinas y vecinos de Egia pusieron en marcha la misma iniciativa. Este año Amara ha creado su propio grupo de cenas (concretamente en el mes de marzo). Por tanto, en la actualidad, tres barrios ofrecen cenas calientes a personas sin hogar gracias a la solidaridad vecinal. Desde el inicio de esta iniciativa, se han repartido más de 40.000 cenas.

Asimismo, la Federación Española de Bancos de Alimentos (FESBAL) ha comprobado que la

%50 igo dela azken urtean, COVIDen pandemia hasi zenetik. Gipuzkoaren kasuan, elikagai bankuen ordezkariek diote, pobrezia larrian dauden pertsonez gain, COVIDek sortutako baldintza ekonomikoen aurretik errenta ertainak edo txikiak zituzten eta orain egitura prekarioa galdu duten familiak ere laguntza eske joaten hasi direla. Bestetik, ERTE eta ERE izenekoengatik lana galdu duten bikote gazteen kopuruak ere gora egin duela antzeman dute. 2021ean %25 handitu zen Gipuzkoan elikatzeko laguntza behar izan zuten pertsonen kopurua. Hala, urtea amaitu baino lehen, 21.638 onuradun artatu zituzten eta 3 milioi kilo elikagai banatu ziren; 2020an baino %35 gehiago.

demanda ha aumentado un 50 % en el último año desde el inicio de la pandemia de la COVID. En el caso de Gipuzkoa, las y los representantes de los bancos de alimentos señalan que, además de las personas en situación de pobreza grave, las familias que antes de las condiciones económicas generadas por la COVID tenían rentas medias o bajas que contaban con una red precaria de apoyo la han perdido y que también han empezado a pedir ayuda. Por otro lado, también se ha detectado también un incremento de las parejas jóvenes que han perdido su empleo a causa de ERTEs y EREs. En 2021, el número de personas que precisaron ayuda alimentaria en Gipuzkoa aumentó un 25 %. Antes de fin de año atendieron a 21.638 personas beneficiarias y se dispensaron 3 millones de kilos de alimentos, un 35 % más que en 2020.

Hain zuzen ere, gure udal taldeak maiatzean hainbat eragile sozialekin (Gurutze Gorria, Emaus, Arrats, Sos Arrazakeria...) egindako bileretan, guztiek elikagai beharrari buruzko kezka konpartitu zuten. Adibide batzuk jartzeagatik, Gurutze Gorriak Karlos Lehenean duen lokalera 130 familia joaten dira hilabetero elikagai bila, eta gehienak gizarte zerbitzuetatik deribatuak izaten dira. Caritasek eta Haurralde Fundazioak ere behar honetara bideratutako laguntzak bikoiztu egin dituzte Donostian, asteko ehunka familia lagunduz; kasu honetan ere udal gizarte zerbitzuetatik jasotzen dituzte deribazio ugari.

De hecho, en las reuniones mantenidas en mayo por nuestro equipo municipal con diferentes agentes sociales (Cruz Roja, Emaus, Arrats, Sos Racismo…), todos compartieron su preocupación por la necesidad de alimentos. Por poner algunos ejemplos, al local de Cruz Roja en Carlos I acuden mensualmente 130 familias en busca de alimentos, la mayoría derivados de los servicios sociales. Cáritas y la Fundación Haurralde también han duplicado las ayudas a esta necesidad en San Sebastián, apoyando a cientos de familias por semana, en este caso también reciben muchas derivaciones de los servicios sociales municipales.

Ekaineko batzordeetan delegatua interpelatu dugunean Udalak zuzenean gestionatzen duen Elikadura Programen inguruan, honako hau adierazi digu: 2021ean 182 familiek jaso zuten elikadurarako laguntza Larrialdietarako Diru Laguntzetatik (256.000 euroko inbertsioarekin) eta udal diru laguntza 255 familiek jaso zuten. Horrez gain, janari poltsen banaketa egiten da Hestian (33 poltsa), “Otorduak I” programan 54 otordu ematen dira egunero eta “Otorduak II”

En cuanto a los programas alimentarios que gestiona directamente el Ayuntamiento, tras interpelar a la concejala delegada en las comisiones de junio, nos ha indicado lo siguiente: En 2021, 182 familias recibieron ayuda alimentaria de las Ayudas de Emergencia Social (con una inversión de 256.000 euros) y 255 familias recibieron subvención municipal. Además, se realiza la distribución de las bolsas de comida en Hestia (33 bolsas), se entregan 54 comidas diarias

programan bi otordu (horietako bat beroa) 58 pertsonari. Abegi etxean 40 pertsonari eguneko hiru otorduak bermatzen zaizkie eta Gauekoan 22 pertsonari ematen zaizkie afaria eta gosaria. Delegatuak emandako datuen arabera, hortaz, 644 familia-norbanako laguntzen dira egunero, haien elikagai beharrak asetzen, eta, zenbaki honi hirugarren sektoreko elkarteek laguntzen dituzten pertsonak gehitu behar zaizkio. Baina, gaur egun, ez dago datu hori topatzeko gune o biderik.

Gauzak horrela, zaila zaigu hirian elikadura beharra duten pertsonen kopurua zehaztea eta laguntza programak eskaintzen dituzten eragileen datuak zein onuradun kopuruak zehaztea.

Irmoki sinesten dugu pobrezia ez dela zatitu behar hainbat atal estankoetan (pobrezia energetikoa, teknologikoa, elikagaiena...). Baina, era berean, sektoreko adituekin eta akademikoekin bat gatoz: egungo Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak etengabe garamatza pobrezia zatikatzen duen eredura eta gizarteratzeko ibilbide arrakastatsurik sortzen ez duen esparru batera. Are gehiago, benetako zailtasun ekonomikoak dituzten familiak sistematik kanpora uzten direnean.

Hortaz, gaur egun dugun markoa aldatzen ez dugun bitartean, horretara egokitu beharrean gaude eta, gizarte-ongizateko beste arlo batzuetan diagnostikoetan oinarritutako estrategiak ditugun bezala (Donostia Lagunkoia, +55 programa, adingabeentzako arreta goiztiarreko programak, adineko pertsonentzako bakardadearen inguruko estrategia eta abar), uste dugu hiriko elikadura beharren inguruko argazkia behar dugula. Argazki hori ezinbestekoa izango zaigu herritarren oinarrizko beharrak asetzeko helburua duen estrategiak, esku-hartzeak eta elkarlanak egokiak zein

en el programa «Otorduak I» y 2 comidas diarias en el «Otorduak II» (una de ellas caliente) a 58 personas. En el Centro Municipal de Acogida Social (Abegi Etxea) se garantizan las tres comidas al día para 40 personas y en el Centro Nocturno Gaueko se sirve cena y desayuno a 22 personas. Por tanto, según los datos facilitados por la delegada, a diario se apoyan directamente 644 familias-personas para cubrir sus necesidades alimentarias, añadiendo a este número las personas apoyadas por las asociaciones del tercer sector. Pero, hoy en día, no hay dónde o cómo encontrar este dato.

Por todo ello, nos resulta difícil determinar el número de personas con necesidad de alimentación en la ciudad, y determinar tanto los datos como el número de personas beneficiarias de agentes que ofrecen programas de ayudas.

Creemos firmemente que la pobreza no debe dividirse en apartados estancos (pobreza energética, tecnológica, alimentaria…). Pero también compartimos la opinión de personas expertas y académicos del sector que el actual Sistema Vasco de Garantía de Ingresos nos lleva constantemente al modelo de fragmentación de la pobreza y a un marco que no genera un itinerario exitoso de inclusión social; más aún cuando se excluye del sistema a familias con dificultades económicas reales.

Por tanto, mientras no cambiemos el marco actual, nos vemos obligadas a adaptarnos a él y, al igual que tenemos estrategias basadas en diagnósticos en otros ámbitos de bienestar social (Donostia Lagunkoia, programa +55, programas de atención temprana para menores, estrategia de soledad para personas mayores, etc.), creemos que necesitamos una fotografía de las necesidades alimentarias de la ciudad. Esta fotografía será imprescindible para que las estrategias, intervenciones y colaboraciones dirigidas a satisfacer las necesidades básicas de la ciudadanía sean adecuadas e integrales.

integralak izan daitezen.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari diagnostiko bat egin dezala hirian elikadurarako laguntza ematen duten zerbitzu publiko, eragile pribatu zein elkarteekin batera, egunero ematen diren baliabide, laguntza eta haien onuradunen kopuruaren estimazio eguneratu bat izan dezagun.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari diagnostiko hori Donostia Sustapenaren laguntzarekin (Hiri Ekonomiako Behatokiaren) egin dezala.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari diagnostikoa Udalbatza osatzen dugun talde politikoekin zein Gizarte Kontseiluarekin parteka dezala, horretara bideratutako bilera edo saioetan.

Donostian, 2022ko ekainaren 16an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a realizar un diagnóstico en colaboración con los servicios públicos, agentes privados y asociaciones de apoyo a la alimentación de la ciudad, con el fin de disponer de una estimación actualizada de los recursos, ayudas y número de personas beneficiarias que se prestan diariamente.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a realizar este diagnóstico con la colaboración de Fomento de San Sebastián (Observatorio de Economía Urbana).

3.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que comparta el diagnóstico con los grupos políticos que formamos parte de la Corporación, así como con el Consejo Social, en reuniones o sesiones dirigidas a tal fin.

En San Sebastián, a 16 de junio de 2022

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Olaia Duarte López, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Aitziber San Román Abete y D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Udan kontratatuko diren udaltzainen hizkuntza gaitasunari buruz.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko ekainaren 13an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udaleko Erne sindikatuak jakinarazi duenez, aldi baterako agenteak kontratatuko ditu Udal Gobernuak, 2022ko udan dituen beharrei aurre egiteko, baina euskaraz gaituta ez dauden agenteak hartuko omen dira, Arkautiko akademiak berriz ere ez duelako bermatuko eskainiko dituen aldi baterako langileek euskara gaitasuna izango dutenik.

Gogoan izan behar da, aurretik ere, agintaldi honetan bertan, beste bi alditan gertatu dela gauza bera: 2019an eta 2021ean. Aurreko aldietan, Euskara Zerbitzuak adierazi izan du kontratazio berrietan ezarri beharreko derrigortasun dataren indizeak Udaltzaingoak duen berbera izan behar duela (%92,86); iaz, ordea, behin-behineko udaltzainen % 14k

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la capacidad lingüística de las/los guardias municipales que el Ayuntamiento contratará en verano.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales de 13 de junio de 2022.

JUSTIFICACIÓN

La delegación sindical de Erne en el Ayuntamiento informa de que el Gobierno Municipal contratará agentes temporales para atender sus necesidades en verano de 2022, pero que, al parecer, se procederá a la contratación de agentes sin cualificación en euskera, ya que, de nuevo, la Academia de Arkaute no garantiza la capacitación lingüística en euskera del personal eventual que ofrece.

Debemos recordar que, con anterioridad, concretamente en esta misma legislatura, ha sucedido lo mismo en otras dos ocasiones: concretamente en 2019 y 2021. En anteriores ocasiones, el Servicio de Euskera ha venido señalando que el índice de fecha de preceptividad a establecer en las nuevas contrataciones debe ser el mismo que el de la Guardia Municipal (92,86 %),

bakarrik izan zuen eskatutako hizkuntza eskakizuna.

Kontuan izatekoa da salbuespenez onartu izan duela Udal Gobernuak aldi baterako agente horiek hizkuntza gaitasunaren betekizuna ez betetzea, baina Euskara Zerbitzuaren aldeko txostena eta Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoaren oniritzia behar diren arren Udalaren lan poltsetarako irizpideak aldatzeko, ez dituela ez bata ez bestearen aldeko txosten edo iritziak bildu.

Hiri Segurtasuneko zinegotziak batzordean berretsi zuen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako bitartekoen poltsa bakarretik egiten direla kontratazioak, hitzarmena baitauka Udalak erakunde horrekin, baina poltsa horretan ez dutela izangai guztiek eskatutako hizkuntza eskakizunik. Egoera hori ez errepikatzeko kudeaketarik egin ote zuen galdetuta, zinegotziak azaldu zuen “pertsonalki” hitz egin zuela Arkautiko akademiako arduradunekin, baina ez dutela euskaraz gaitutako aski agenterik. Zinegotziak adierazi zuen, baita ere, Donostiako Udala behartuta dagoela hitzarmena betetzera, agente berrientzako nahitaezkoa den trebakuntza berezitua Arkautik besterik ezin baitu eskaini.

Hitzarmenak jasotzen duenez, aldi baterako “langile horiek aldez aurretik hautatu, prestatu eta gaituko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak (...) kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz” (Klausulak, lehena). Gainera, aldeen betebeharrak zehaztuta, hitzarmenak adierazten du Akademiak hautagaien prestakuntza gauzatuko duela, eta Udalak uko egingo diola lan poltsak antolatzeari, eta modu esklusiboan baliatuko dituela “Segurtasun Sailaren poltsako bitarteko langileak” (Klausulak, hirugarrena).

mientras que el año pasado sólo el 14 % de las/os agentes eventuales tuvieron el perfil lingüístico requerido.

Hay que tener en cuenta que excepcionalmente el Gobierno Municipal ha admitido el incumplimiento del requisito de capacitación lingüística de estos agentes temporales, pero si bien es necesario el informe favorable del Servicio de Euskera y el visto bueno de la Comisión Técnica de Normalización Lingüística para modificar los criterios de las bolsas de trabajo del Ayuntamiento, no se han recabado informes ni opiniones favorables de ninguno de ellos.

El concejal de Seguridad Ciudadana indicó en la comisión que las contrataciones se realizarán desde una única bolsa de interinos de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, ya que el Ayuntamiento tiene un acuerdo con dicha entidad, pero que en dicha bolsa no todas las personas aspirantes tienen el perfil lingüístico exigido. A pregunta de si realizó gestiones para no repetir esta situación, el concejal explicó que, habló «personalmente» con los responsables de la academia de Arkaute, pero que no tienen suficientes agentes capacitados en euskera. El concejal manifestó también que el Ayuntamiento de Donostia está obligado a cumplir el convenio ya que la formación especializada obligatoria para los nuevos agentes sólo puede ofrecerse desde Arkaute.

El convenio recoge que dicho personal eventual «será previamente seleccionado, formado y habilitado por la Academia Vasca de Policía y Emergencias (…) garantizando su calidad y eficacia» (Cláusulas, primera). Además, concretando las obligaciones de las partes, el convenio señala que la Academia llevará a cabo la formación de las personas candidatas, renunciando el Ayuntamiento a la organización de las bolsas de trabajo y haciendo uso exclusivo del «personal interino de la bolsa de trabajo del Departamento de

Gauzak horrela, batzordean adierazi genion Udal Gobernuari urtez urte salbuespenaren bidea baliatu behar izateak auzitan uzten dituela bai Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plangintza bera, bai Udalak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hitzartuta duten akordioa ere.

Seguridad» (Cláusulas, tercera). Ante esta situación, en dicha comisión planteamos al Gobierno Municipal que la necesidad de acogerse año tras año a la vía de la exención cuestiona tanto la propia planificación de la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento, como el acuerdo entre el Ayuntamiento y la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

Horregatik, galdetu genion Udal Gobernuari zer dela eta ez duen aztertu zerbitzu juridikoekin, indarrean dagoen ala ez Udalak Polizia Akademiarekin duen hitzarmena, ikusita Arkauti ez dela betetzen ari lan poltsetarako adostutakoa. Zinegotziak berretsi egin zuen Arkauti ez dela betetzen ari lan poltsetarako adostutakoa.

Por todo ello, preguntamos al Gobierno Municipal sobre el motivo por el que no ha analizado, junto con los servicios jurídicos, si está vigente el convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la academia de Arkaute. El concejal reiteró que Arkaute no estaba cumpliendo con lo acordado para las bolsas de trabajo.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por ello, el que concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zerbitzu juridikoekin azter dezala Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin duen hitzarmena indarrean dagoen ala ez, zinegotziak adierazi bezala, Akademia ez baita betetzen ari Udalaren beharrak asetzeko hitza, eta indarrean ez dagoela iriztekotan, korapiloa ebazteko, administrazio publikoen arteko lankidetza hitzarmenen administrazio araubideak eskaintzen dituen bideak urra ditzala, baita hitzarmena salatzeko eta administrazioarekiko auzi jurisdikzioaren esku jartzeko aukera ere.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que analice con los servicios jurídicos la vigencia del convenio del Ayuntamiento con la Academia Vasca de Policía y Emergencias, dado que, según manifiesta el concejal delegado, la academia de Arkaute no está cumpliendo el compromiso de satisfacer las necesidades del Ayuntamiento y, en caso de estimarse que existe un incumplimiento, resuelva el problema, que inicie los cauces que ofrece el régimen administrativo de los convenios de colaboración entre administraciones públicas, así como la posibilidad de denunciarlo y ponerlo a disposición de la jurisdicción contencioso-administrativa.

